


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Gaztañagari txapela, sagardozaleen epaia

Euskal Herriko Sagardo txapelketa herrikoiairen finalean andoaindarrak nagusitu ziren

Euskaraldia, abiatze lanak bi herrietan

Urrietan hamaikakoaren aurkezpen ekitaldia egin zuten Sanmielen hasieran. Andoainen Jon Unanuek hitzaldia eskaini zuen, Aita Larramendi ardatz hartuta / 6-7



Sanmielen lehen txanda amaituta, jaiak jarraipena izango du Urrietan asteburuan / Gehigarria

Andoaingo auzoen arteko herri kirol lehiaren parte hartu duten kideek lagunarteko afaria egin zuten / 3

Gipuzkoako ondarea ezagutzeko ibilbide gidatuak Andoainen eta Urrietan, datorren urriaren 21ean / 8



Xoxokako jaiak datorren astelehenean abiatuko dira, bertso bazkariarekin / Gehigarria

Egunean eguneko albisteak sarean



Sanmielak Urrietan



Euskaraldia eskualdean



Xoxokako jaiak

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA





Gaztañaga aita-semeak txapeldunei dagokien sariak eskuetan, podiuma osatu zuten sagardogileekin batera. SAGARDOAROUTE

Sagardozaleen saria jaso dute

Andoaingo Gaztañaga sagardotegia azken urteotan antolatu diren lehiaketa nagusietan garaile atera ez bada, ohorezko postuetan sailkatu da. Joan zen larunbatean Euskal Herriko Sagardo txapelketa herrikoia irabazi zuten Usurbilen

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Herritarren neurria egindako txapelketa dela dio Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak: "Euskal Herriko 41 Sagardotegitako sagardoak, afaltzera inguratu diren guztien artean dastatu eta puntuatu dira. Herritarrek parte hartu dute txapelketa herrikoi honetan, sagardoaz gozatzea baita baldintza bakarra. Ezagunak ditugu herriz herriko Sagardo Egunak eta dastatzeak. Txapelketa herrikoia sagardoaren irrika herriari itzultzera dator: afaltzera eseri eta ateratzen dituzten sagardo desberdinak dastatu, eta nork bere gustu eta iritzia arabera nahi duen puntuazioa ematen dio, bostetik hamarrera. Beraz, epaile izatea, afaltzera eseri eta sagardoak dastatzea da, lagunarteko giroan". Asmo hori lortzen ari direla ikusten da, urtez urte lehiaketa

fintzen eta doitzen ari baitira. Gertuen, Urnietako azken finalurrekoan ikusi zen. Sagardozaleen elkarteko ordezkariak eta Batzokiko kideek elkarlanean afari eta lehiaketa dinamiko antolatu baitzuten. Usurbilgoa antzekoa izan zen, baina eskala handiagoan. Izan ere, frontoian antolatzeak jende askoz gehiagori afaria eta sagardoa neurrian eskaintzea baitakar.

Finalean jendea afaltzen hasi orduko hasi ziren mahaira sagardoa ateratzen, eta afarian zirenek lote bakoitza puntuatu zuen. Inork ez zuen jakin zein sagardotegitako sagardoa dastatu zuen sari banaketaren gairira arte. Bertan, puntuazioz eta hurrenez hurren, jakinarazi ziren lehen hiru sagardo gustukoenak; gainontzeko bederatzi finalistenak, berriz, orden alfabetikoan jakinarazi ziren.

Laugarren edizio honetan Euskal Herriko txapelketa herrikoia herri desberdinetan izan du bere lekua. Datorren urteari begira jarrita daude dagoeneko, finalurreko eta finalak non egin herritarrekin batera landuz. Herriz herri egiten diren eta sare horretan sartzeko interesa duten txapelketa eta Sagardo Egunekin elkarlanean antolatu du txapelketa herrikoia Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak. Aurtengoan lankide izan ditu Eusko Jaurlaritza, HAZI fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Beasain, Goizueta, Oñati, Urnietako final handia hartu duen Usurbilgo Udalak.

Beterri-Buruntza sagardoaren lurraldearen erdigunean izanik, txapelketaren kokalekuan duen garrantziak logika osoa du. Txapela bera ere eskualdean geratu da, Buruntza auzoan hain zuzen.

Azken txanpa eskualdean



Finalean jendetza bildu zen. SAGARDOAROUTE

Finala Usurbilen Lehiaketa osoan zehar 228 pertsonek osatu dute epaimahaia, afari bikainak eta giro paregabeak lagunduta. Denera, Euskal Herri osoko 41 sagardogilek parte hartu dute lehiaketan.



Joxe Angel Gaztañaga Urnietako azken finalurrekoan. AIURRI

Finalurrekoa Urnietan Irailaren 22an Batzokian laugarren eta azken finalurrekoa jokatu zen. Bertan dastatu ziren sagardoak maila handikoak izan ziren. Sailkapena ikusita, Urnietako finalurreko sagardoek puntuaketa handia lortu zuten.

Sailkapena

Finala

1. Gaztañaga sagardotegia (Andoain).
2. Aburuza sagardotegia (Aduna).
3. Irigoien-Herrero sagardotegia (Astigarraga).

Gainontzeko finalistak, alfabetikoki:

- Alberro (Hernani).
- Alorrenea (Astigarraga).
- Añota (Azpeitia).
- Astiazaran (Donostia).
- Bereziartua (Astigarraga).
- Eguzkitza (Tolosa).
- Eula (Urniet).
- Rufino (Urniet).
- Zabala (Aduna).

Finalurrekoak

Finalurreko bakoitzetik sailkatutako lehen biak:

Beasain (irailak 8):

1. Zabala (Aduna).
2. Alberro (Hernani).

Goizueta (irailak 15):

1. Irigoien-Herrero (Astigarraga).
2. Iruin-Astiazaran (Zeberio).

Oñati (irailak 21):

1. Eguzkitza (Tolosa).
2. Bereziartua (Astigarraga).

Urniet (irailak 22):

1. Alorrenea (Astigarraga).
2. Añota (Azpeitia).



Herri kirol lehiari aritu ziren lagunak afaltzeko bildu ziren Etxeberrietako Kotoi elkartearen. AIURRI

Lagunartean

Aurten auzoen arteko herri kirolen ligari parte hartu duten kirolariak afarian elkartu ziren joan den larunbatean, Etxeberrietako Kotoi elkartearen. Segur, ingudea edota txingak albo batera utzi, eta saiheski jateari ekin zioten mahai baten inguruan

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo bost auzotan indarrak neurtzearekin batera herri giroa sortzea lortu dute Buruntza, Goiburu, Etxeberrieta, Santa Kruz eta Sorabillako taldeek. Partaideek elkarri zer kontatua bazuten, larunbat gauean. Ez alferrik, Andoainen urteko ekimenik azpimarragarrienetakoa izan baita auzoen arteko herri kirol lehia. Ligan zehar antolaketa lanetan ez ezik parte hartzaile gisa jardun duten Etxeberrietako Nika Murillori eta Goiburuko Miren Lopez de Munaini iritzia eskatu zien Aiurrik, gau berezi horretan.

Miren Lopez de Munain (San Esteban-Goiburu):

“Aurreneko aldia izan da bost auzoen artean horrelako mugida antolatuta dela, eta gozoa da amaitu ostean niri geratzen zaidan lehenbiziko sententzia. Batez ere, estutu egin direlako Andoaingo auzo ezberdinetako kideen arteko harremanak, konfiantza sakondu egin delako.

Azken batean, oinarri sendoa ezarri da, etorkizunean ere herri giroa pizten segitzeko.

Polita izan da zer nolako saltza piztu den ikustea. Eta nik uste polita izan dela gutako gehientsuenak herri kirolaren

aritu gabeak edo ia aritu gabeak izan garelako. Parte-hartze zabala eta parekidea izaten saiatu gara denok ere, proba honetan eta hartan fisikoki edo tekniko ki trebea nor izan zitekeen gehiegi erreparatu gabe. Baztertu



Miren Lopez de Munain. AIURRI

"POLITA IZAN DA HERRI KIROL LEHIAN ZER NOLAKO SALTZA SORTU DEN IKUSTEA"

MIREN LOPEZ DE MUNAIN, GOIBURU

egin dugu kosta ala kosta irabaztera joatearen obsesioa. Eta uste dut erakutsi dugula gu bezalako hasiberriek ere ikuslea asetzeko moduko ikuskizuna eskaini dezakegula.

Buruntzako neska-mutilek irabazi dute, eta bejondeiela!

Datozen urtetan borroka latza egin beharko dugu aurten irekitako bideari eusteko edo indartzeko. Emaitza polita da, baina ez da berez etortzen den gauza, atzetik eginahal berezia eskatzen du, bilera mordoa egin, jendearekin harremanetan jarri eta asmoak azaldu...

Badago borondatea Andoaingo herritarren artean eta auzoetan giroa jartzeko, eta horixe lehen helburua dela guztiok argi daukagunez, bide onetik goaz. Hortik aurrera, antolakuntza eta kirol mailan gauzak hobetu badaitezke, ondo etorriak izan daitezela".

Nika Murillo (Etxeberrieta):

“Herri kirol lehia bukatuta, oso balorazio baikorra egiten dut nik. Jai Batzordeok hiru helburrekin sortu genuen lehiaketa: Andoaingo kale giroa, herri kirolak eta auzoetako jaiak pixka bat gehiago sustatzea, eta emaitzak ikusita, pozik egoteko

"POZIK EGOTEKO ARRAZOIAK SOBERAN DITUGULA ESANGO NUKE"

NIKA MORENO, ETXEBERRIETA

arrazoiak soberan ditugula esango nuke.

Aurreko urteetan, Jai Batzorde guztiek ere herri kirolen inguruko jaialdiak antolatu izan ditugu, kategoriako kirolariak ekarrita. Baina ezin da konparatu ikusleen artean oraingoan sortu den ikusmin eta giroarekin. Parte-hartzaileak herrikoak izan dira eta horren bitartez senitartekoak, ezagunak, lagunak, bizilagunak..., bestela erakarriko ez zen ikusle mota hurbiltzea lortu da. Gainera, nor bere auzoko jendea animatzen aritu da, bere auzoa ordezkatzeko ari zirela sentitu baitu. Lehia sanoa sortu da auzo ezberdinetako taldekideen artean, eta azkenean, aurtengo jai guztiei ukitu berezia eman die herri kirol lehiak.

Dena ez da arrosa kolorekoa izan, dena esatera. Auzo bakoitzeko antolatzaileei nahikoa kosta zaigu jendea erakartzea, kirol batean edo bestean parte har zezan. Gure kasuan, Etxeberrietan, akaso larriagoa izan da. Teorian, guretzat izan behar luke lanik errazena, auzorik jendetsuena delako eta bertan gazte ugari bizi delako. Baina ia kontrako gertatu zaigu. Ikusita dago bi errealitate bizi ditugula: batetik, bada jendea ez duena ezertxo ere jakin nahi ez jaiekin, ezta herri kirolekin eta ezta antolatzen diren ekimen herrikoiekin ere. Eta bestetik, bada jendea arrimatu litzatekeena, baina horiek zirikatzen ez dugu asmatu. Hurrengo urtetarako erronka daukagu jarritan, ea lortzen dugun bigarren talde horretako batzuk gureganatzea.


Bestetik, esan behar da parte-hartzaile batzuk adinez aurrera goazenak izan garelako, eta hori ere ez da normala. Argi dagoena da gazteek oso gutxi ezagutzen eta praktikatzeko dituztela herri kirolen jarduerak asko. Seguru gaude, futbol lehiaketa antolatu izan bagenu, ez genuela arazorik edukiko. Herri kirolei beldurra kentzea eta probatzea, hor dago koska.



Nika Murillo. AIURRI

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

ALBERTO RUBIO ABETE ANDOAINGO ESCIVIKO LANGILEEN ORDEZKARIA

Kaleratzea zinema eta bideo eskolan

Andoaingo Zine eta Bideo Eskolak langileen ordezkariaren emaztea kaleratu du.

Andoaingo Zine eta Bideo Eskolako jabeak eta zuzendariak, Iñaki Aizpuruk, ekainaren 27an langileen ordezkariaren emazteari kaleratze gutuna eman zion, 28 urtez enpresan lanean aritu ostean. Teknologia berrietara ez egokitzea izan da kaleratzeko erabilitako arrazoia.

Gertaera hau Garen enpresa elkartearen printzipioen aurka doa, Iñaki Aizpuru sortzailetako bat da. Elkartearen misioa honela definituta dago: "Euskadiko enpresarientzat elkarte plataforma berri bat da, parte-hartzailea, plurala eta

askea, eta enpresariaren ahalduntzea bilatzen duena, gizartean duen garrantzia aldarrikatuz eta gizarte kohesioa eta negozioazioa alde batera utzi gabe. Guzti hori beti ere gizarte erantzunkizun eta etika kulturalaren ikuspuntutik".

Epaiketa urriaren 25ean izango da eta bertan demostratu ahal izango da, eskolaren jabearen tesia, enpresariaren praktika onen eta Garen elkarteak, bere elkarteak, defendatzen duen misioaren aurka doan estrategia dela.

Langileen ordezkari gisa zortzi urtez lankideen defentsan diharduena zigortu edota intimidatzeko eginiko ekintza gisa ulertu daiteke.

ehbildu

POSTONTZIA

EH BILDU ANDOAIN

EH Bilduren bilgune berria Andoaingo Zumea kalean

EHBilduk herri bilgune berria izango du aurrerantzean.

EHBilduk bere erreferentzia izango den lokala zabalduko du asteburu honetan Andoainen. Lokal berri hau Zumea kalean egongo da kokatuta, 5. zenbakian, eta esan bezala, larunbat honetan, urriaren 6an 12:00etan egingo da inaugurazio ekitaldia. Bertan izango dira Gasteizko Legebiltzarrean EHBilduko taldearen bozeramale den Maddalen Iriarte eta Andoaingo alkate den Ana Carrere.

Gune honen irekierarekin EHBilduk Andoaingo abertzale eta ezkertiarrei topagune bat eskaini nahi die, Andoain eta Euskal



Herria aske eta justuago bat eraikitzeko bide honetan harreman eta aliantza berriak sortzeko lagungarria izango delakoan.

Beraz, andoaindar guztiak gonbidatu nahi ditugu larunbatean inaugurazio ekitaldi honetara gerturatu daitezen.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da.
Urietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugarte Mendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRI ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

SANMIELAK 2018

URNIETA





Jaien hasieran irudi ikusgarria eskaini zuen Erraldoien eta Buruhandien konpartsak. AIURRI

Bikaina izan da

Aurtengoan jaia bikaina izan da. Parte-hartzea, eguraldia, egitaraua... osagai horiekin guztiekin urnietar askoren festarako gosea asebate da. Jokin Lizeagak maisuki eman zion hasiera jaiari, igande iluntzera arte luzatu zena



Mikel Pagola alkateak Miela eskuetan zuela, Jokin Lizeagak jaien hasierako adierazpen gogoangarria egin zuen. AIURRI

Musikariak eta zaletuak bat eginik



Goian Bosko Anitz txaranga, behean gazte koadrila. AIURI





AIURRI

Alkate txikiak

Lide Labaka Salas eta Telmo Rioja Pasaban urnietar gazteak izan dira aurtengo jaietan alkate txikien paperean aritu diren urnietar gazteak. Ostiral goizean hartu zuten kargua ofizialki, eta egun osoan zehar

ekitaldi ezberdinetan hartu zuten parte. Bezperan, jaien hasierako ekitaldietan izan ziren. Argazkian, txupinazoa bota zuen Jokin Lizeagarekin eta Udal ordezkarekin.



AIURRI

Kontzejupeko finalak

Urnietako kontzejupeko finalak jokatu ziren, eskuz nahiz palaz, Urnieta KE pilota atalak antolatuta. Emaitzak: Aurre benjaminak: Xabier Agirre 12-7 Ander Egaña. Benjaminak: Ekai Astiasaran 16-14 Iker Albizu.

Alebinak: Manex Albizu 16-9 Aimar Urrea. Infantilak: Unai Barberena 18-9 Eki Garcia-Viana. Paleta neskak: Itsasne Urruzola 18-2 Olatz Gorroño. Paleta mutilak: Xabi Ansa 22-18 Unai Legarreta.



Patata tortilla osatzeko menu ederra zuten argazkikoek. AIURRI

Jai giroko patata tortilla lehiaketa



Koadrila honek jaien hasierako txupinazoa botatzea merezi du. AIURRI



Tortillarena ez dakigu, baina mozzorroena irabazteko meritua bazuten. AIURRI



Jaia eta umorea ondoen uztartu zuen lagun taldea. AIURRI



Danborrada kalejiran irten zen elizarako bidean. AIURRI

Urdanbor santuaren omenez



Ekitaldi polita izaten da Urdanborreko kideentzat. AIURRI



Urtez urte danborradaren tradizioa indartuz doa Urnietan. AIURRI



Arratsaldean saio ikusgarria eskaini zuen San Migel elizan. AIURRI



Urnietako txistulariak izan dira aurtengo Udal omenaldia jaso dutenak. AIURRI

Txistulariei gorazarre

Udalak jaietako egun handian antolatzen duen omenaldi ekitaldian txistulariak izan dira aurtengo protagonistak. Omenaldi horretan kontutan hartu zituzten azken berrogeita hamar urteetan herriko kaleak alaitzen aritu diren txistulari guztiak

Erredakzioa URNIETA
Txistulariak betidanik izan dira Urnietan, baina azken hamar-kadatan bada txistulari bat be-

launaldi ezberdinen artean giltzarri bilakatu dena. Eta horixe Juxto Egaña da. Egape ikastolan hainbat ikasle trebatu zituen,

Urnietako txistularien harrobi bilakatuz. Talde txikia zena handituz joan zen eta, egun, Txanbolin elkartea osatu dute.



AIURRI

Kantuan Aiurriko kantu liburuxka eskuan hartuta

Kantuan irteteko ohitura oso errotuta dago euskaldunen artean. Aurtengo jaietan, iaz bezala, abesteko zaletasuna duten urnietarrei kalean kantari aritzeko aukera eskaini zaie. Zuzeneko musikaren laguntzarekin, Txanbolin elkartearen eskutik bereziki, musikariak eta kantariak ostiral arratsaldea alaitzen aritu ziren. Kantuan aritzeko, Aiurrik urtero txotx garaian argitaratzen duen kantu liburuxka erabili zuten.





Bi ikastetxeetako haur danborradak igande eguerdian San Juan plazan. AIURRI

Haur danborrada

Danborradarik gabe nekez uler daiteke jaia, Urnieta izan edo beste herri bat izan. Sanmieletan haur danborrada eta helduen danborrada bana izaten da. Herritar askoren gogoko jarduera da, jaietan parte hartzeko modu aktiboa

Erredakzioa URNIETA
Magale ikastetxeak eta Egape ikastolak bakoitzak bere lehen saioak eskaini eta gero, igande

eguerdian San Juan plazan elkartu ziren. Bertan saioa egin eta gero, elkarrekin kalejiran abiatu ziren. Udalak txalotu egin

du ekimena, "elkarrekin egin daitezkeela eta horrela denon arteko elkarbizitza hobea dela erakutsiz".



Sukaldaritza lehiaketa

Txomin Roscok eta Emi Ariasek egindako pil-pil erarako bakailaoak irabazi du aurtengo lehiaketa. Angel Fadrique era Aroa Carrasco bigarren sailkatu ziren. Iaz Aballarrak abiatutako ekimenak jarraipena izan du aurtengoa. Helduen mailan, gainera, parte hartzea urte batetik bestera igo egin da. Txikien artean "Master-Txef txiki" delako lehiaketa antolatu zuten.

Argazkian helduen eta haurren mailako partaideak.



Goizetik hasi eta biharamunera arte, prest zeuden herriko gazteak. AIURRI

Herri bazkari jendetsua



Koadrilentzat egun handia da larunbatekoa. AIURRI



Janari goxoa, sagardoa eta umore ona, ezinbesteko osagaiak. AIURRI



Lagunartean igarotzeko egun aproposak dira jaiak. AIURRI



Ostegunean Marizulotik jaitzi zen, igandean berriro itzultzeko. AIURRI

Mielak Marizuloko bidea hartu zuen



Jaien hasierara eta amaierara jendetza biltzen da San Juan plazan. AIURRI



Harrigarria badirudi ere, urteak aurrera doaz ordularia konpondu gabe. AIURRI



Igande iluntzean dantzari talde handi samarra bildu zen San Juan plazan, eta haien inguruan dozenaka herritar. EGAPEDT

Dantza-soka ikusgarria

Jaien amaierako hitzordu maitatuena da, dozenaka herrikideren arreta bereganatzen duena. Belaunaldi ezberdinetako dantzariak biltzen dira, eta herrikideen partaidetzarekin batera, urtez urteko ohitura tradizio bilakatzen ari dira



Janire Juanikorena. AIURRI



Kontxi Garcia. AIURRI



Usabiaga eta Muruamendiaraz. AIURRI



Uxue Manterola. AIURRI



Lourdes Soto. AIURRI



Josean Beldarrain. AIURRI



Jaien hasierako ekitaldia, irailaren 27an. UDALA

Jaien balorazio ona

Urnietako Udalak balorazio oso positiboa egin du: "Urnietako kale eta auzoak lau egunez umorez, giro onez eta jendez beteta egon ostean igandean eman genien amaiera San Migel jaiei"

Erredakzioa URNIETA

Jaiak bere horretan egin ahal izan direlako pozarren daude Udal ordezkariak: "Herriarren erantzuna eta parte-hartzea apartak izan dira eta jendetza bildu da ekitaldi gehienetan, batez ere plazaren inguruan antolaturikoetan. Eta ez bakarrik herriko jendea, ingurukoetatik ere jende dezente gerturatu da".

Berrikuntza ezberdinak izan dira eta horiek hasiera ona izan dutela nabarmendu dute: "Holi Fest!ean gazte asko izan ziren, Tunt motor ikuskizunera herri-tar mordoak bildu zen, danborra-daren doinu berriak gustura entzun dira eta aurrean lehenda-

bizikoz haurren bi danborradak batera atera dira, gauzak elkar-rrekin egin daitezkeela erakutsiz".

Istilurik gabeko jaiak

Jaiak lasai igaro dira, istilurik gabe. Udalak horregatik herri-tarrak zoriondu nahi izan ditu: "Jarrera bikaina izan duzue, besteeikiko elkartasuna eta errespetua erakutsiz. Arrazoi horregatik zorionak eman nahi dizkizuegu".

Eta behin eskerrak ematen hasita, ezinbestekoa da herri-ekimenei aipamena egitea: "Zuek gabe jaiak aurrera eramatea ezinezkoa litzateke eta, lan bi-

kaina egin duzue. Eskerrak baita modu batean edo bestean festak aurrera eramateko laguntza eskaini duzuen herritar eta Udal langileei ere, zuen ekarpe-na funtsezkoa izan da eta".

Ospakizunak ez dira amaitu

Igande honetan ospatuko da Arrosarioko amaren ohorezko jaiak. Eta jarraian Xoxokako festei hasiera emango diote. Parte hartzeko deia luzatuz amaitu zuten balorazioa emateko oharra: "Urnietarrok badugu non aukuratua ondo pasatzen jarraitzeko. Urnietako Udalak egun zoriontsuak opa dizkizue herritar guztiei".



Larunbatean Saroben eta igandean San Juan plazan, bi saio eskainiko dituzte. TREBEDE

Folklore jaialdia asteburuan, Aurrera Gure Ametsaren eskutik

Aurtengo Jalgi Plazara jaialdian Valladolideko Asociacion Cultural la Trebede izango da gonbidatua

Erredakzioa URNIETA

Asociacion Cultural la Trebede izeneko folklore taldea Valladolid probintziako eta Gaztela Leongo erkidegoko dantza folklorikoak eta kultur jarduera gehiago zabaltzeagatik ezaguna da. Han hemenka, abestiak, jotak, kalejirak, jokoak eta beste-lako kultur jarduerak eskaintzen dituzte urtean zehar.

1992. urtean hasiera eman zioten gaztelakoek euren ibilbideari. Hordutik hona etenik gabe euren lurraldeko kulturaren ikerketa, hedapena eta zabaltze lanetan dihardute.

2006an folklore taldea sortu eta dultzaina, kitarra eta beste hainbat musika instrumenturen batera ikuskizunak sortuz

dabiltza. Hurrengo geltokia Urnietan dute, asteburu honetan hain zuzen.

Bi saio Urnietan

Asteburuan zehar lur haietako folklorea ezagutzeko parada polita izango da. Urriaren 6an, larunbatearekin, ikuskizuna eskainiko dute Saroben arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Eta biharamunean, Arrosarioko amaren ohorezko jaiak, eguerdiko 12:00etatik aurrera dantza saioa eskainiko dute San Juan plazan. Antzinako musika tresnen tailerra antolatuko dute, bide batez. Egun berean, Gaztela Leongo artisautza produktuak dastatu eta erosteko aukera izango da.

Laster Aiurriko harpidedunek
Ikusbera aldizkariaren
zenbaki berria jasoko dute.

ASTEBURUA URNIETAN



Puro Relajo taldea zuzenean arituko da igande arratsaldean. PURORELAJO

URRIAK 6

LARUNBATA

19:00 Dantza ikuskizuna Saroben: Aurrera Gure Ametsa eta Valladolideko La Trebede.

URRIAK 7

IGANDEA

10:00 Diana Txanbolin elkartearen eskutik.

11:00 Meza elizan.

12:00 Ingurutxoa eta Jalgi plazara dantza jaialdia San Juan plazan.

12:00 Valladolideko produktuen salmenta San Juan Plazan.

12:00 Munduko ardoen dastaketa.

17:30 Herri kirol erakustaldia. Astigarragako Emarri neska taldea harriari tiraka.

18:00 Txekor jate solidarioa.

18:30 Willy Etxeberria Zesta punta memoriala: Lertxundi-Manzisor // Goixerri-Andonegi.

18:30 Puro Relajo rantxerak, korridoak eta euskal kantak San Juan plazan.

18:30 Azken traka eta jai amaiera.

XOXOKAKO JAIK

URRIAK 8

ASTELEHENA

12:00 Jaien hasiera.

12:30 Herri kirolak: Telleria eta Mugerza anaiak elkarren aurka. Ondoren, trikitilariak.

14:00 Bertso bazkaria Adarra jatetxean: Amets Arzallus eta Jexux Mari Irazu. Txartelak bertan salgai.

21:00 Afaria Xoxokako eskolan. Bakoitzak berea eramanda.

23:00 Elustondo anai-arrebak.

URRIAK 9

ASTEARTEA

17:00 Idi proba: Intxaubururen idiak Telleriaren idien aurka.

20:30 Zahagi-ardoa.

23:00 Gau sorpresa.

URRIAK 12

OSTIRALA

12:00 Desafioa: 50 jasoaldi 100 kiloko zilindro zaharrari, 6 km



Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ostiraletik igandera karpa handi bat ipinita egongo da plazan. Eta berogailua afaltzeko garaian. AIURRI

korrika eta segan 700 m2 txanda librean. Julen Gabirondo eta Suhari Irazustabarrena, Beñat eta Urtzi Telleriaren aurka.

17:00 Xoxokako II. Giza proba: auzoko gazteak elkarren aurka.

20:30 Bertso afaria Xoxokako plazan: Oihana Iguaran eta Sebastian Lizaso. Txartelak salgai: Adarra, Zelai eta Guria.

01:00 Erromeria goizaldera arte: Emengattun.

URRIAK 13

LARUNBATA

11:00 Hamaiketako eta bertso saioa Xoxokako eskolan.

11:00 Puzgarriak haurrentzat.

15:00 Mus azkarra txapelketa Xoxokako eskolan. Izen-ematea eta gero, txapelketari hasiera 16:00tan emango zaio.

16:00 Puzgarriak haurrentzat.

17:00 Gorriti show. Jarraian txokolate jana.

20:30 Betizu jatea Xoxokako plazan. Txartelak salgai: Adarra, Zelai eta Guria. Ondoren, "Bakean dagoenari bakean utzi" bakarrikzeta saioa.

01:00 Gaupasa: Gabenara.

03:00 DJ Altzibar Xoxokako eskolan, goizalderarte.

URRIAK 14

IGANDEA

12:30 Meza. Ondoren Egape dantza taldearen saioa.

17:30 Herri kirol lehiaketa auzoko gazteen artean.

18:00 Sagardo dastaketa: Oianume, Setien, Eula, Elutxeta, Otsua-Enea eta Elorrabi.

20:30 Jaien amaiera.

Urnietako jaiak Aiurri.eus webgunean:

**Protagonistak,
egitarau osoa,
argazkiak, bideoak...**



ZORION AGURRAK



ANDOAIN **Maddi**
Irailaren 26a iritsi zen!!! 8 urte potolo maitia... zeinen azkar pasatzen den denbora!! Mila muxu etxekoan partez. Aita, ama eta Elene.

ANDOAIN **Unai**
Urriaren 13an urteak beteko ditu. Zorionak etxeko guztien partetik, zure seme Oinatz, Unax eta Aner iloben partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus
webgunea
"Zorion agurra" atalean, fitxa osa ezazu.
Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora.

Arantzibia plaza 4-5, behea
Etor zaitez bulegora.
943 300 732.

Whatsappez:
619 16 35 37.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 6 eta igandea 7
MONFORT: Aita Larramendi, 26.
943 300 913. Andoain.

URNIETA

Larunbata 6 eta igandea 7
ODRIOZOLA: Idiazabal, 18.
943 334 014. Urnieta.

Gauez, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

MERKATU TXIKIA

LANA

Hizkuntza eskolako irakasleak frantseseko klaseak ematen ditu: EOI diploma, mintzapraktika, enpresetarako klaseak. **693 692 823** eta **665 719 827**.

Gazte euskalduna arratsaldeaz haurrak zaindu edo partikularrak emateko prest. **630 243 850**.

IRAGAR ZAITEZ

Dohainik da.
Idatzi: **diseinua@aiurri.eus**

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 5

ANDOAIN Erakusketa
Soinua, moda eta argazkigintza uztartzen dituen erakusketa da "Kuku kanta".
18:00, Basteroko erakusketa gela.

LARUNBATA 6

ANDOAIN Irekiera ekitaldia
Maddalen Iriarte eta Ana Carrere EH Bilduren egoitza berriaren irekieran.
12:00, Zumea kalea 5.

URNIETA Dantza
La Trebede folk taldearen emanaldia Aurrera Gure Ametsaren eskutik.
19:00, Sarobe.

ANDOAIN Antzerkia
Ados Teatroak Dublindarrak antzezlana eskainiko du.
21:30, Bastero.

IGANDEA 07

URNIETA Ospakizuna
Arrosarioko Amaren ohorezko jaia. Ospakizunak San Juan plazan.
10:00 Diana.
11:00 Meza.
12:00 Ingurutxoa, elikagaien salmenta, munduko ardoen dastaketa.
17:30 Herri kirol erakustaldia.
18:00 Txekor jate solidarioa.
18:30 Zesta punta memoriala.
18:30 Rantxerak, azken traka.
Egun osoan zehar.



ADOS TEATROA

ANDOAIN Antzerkia
Dublindarrak (Dubliners), James Joycen kontakizun sinple baina sakona da, bizitzaren suntsikortasuna, gazte garaiko maitasun galduak eta oroimin eta iruzurak zikindutako bizitza batzuen inguruan.
21:30, Basteroko auditorioa. Urriak 5, ostirala.

ASTELEHENA 8

ANDOAIN Bilkura
Pentsiodunen elkarretaratze isila.
12:00, Goikoplaza.

URNIETA Xoxokako jaiak
12:00 Jaien hasiera.
12:30 Herri kirolak.
14:00 Bertso bazkaria Adarra jatetxean: Irazu, Arzallus.
21:00 Afaria Xoxokako eskolan.
23:00 Elustondo anai-arrebak.
Egun osoan zehar.

ASTEARTEA 9

URNIETA Xoxokako jaiak
17:00 Idi proba.
20:30 Zahagi-ardoa.
23:00 Gau sorpresa.
Arratsaldean hasita.

ANDOAIN Hitzaldia
Agnes Pe zine zuzendariak eta musikagileak soinuarekin lotutako "Pop marroi ez-hilgarria" izeneko hitzaldia emango du.
18:00, Basteroko ekitaldi aretoa.

ZINEMA

ANDOAIN

BASTERO

Todos lo saben
Larunbata, 6:
19:30; 22:00.
Igandea, 7: 19:30.
Astelehena, 8:
19:30; 22:00.
IKUSLE EGUNA.

Futbolisimos

Larunbata, 6:
17:00.
Igandea, 7: 17:00.
Yucatán
Larunbata, 13:
19:30; 22:00.
Ig., 14: 19:30.
Astelehena, 15:
19:30; 22:00.



Vaya bichos

Larunbata, 13:
17:00.
Igandea, 14:
17:00.
El viaje de Nisha
Igandea, 21:
19:30.
Astelehena, 22:
19:30; 22:00.

SINOPSIAK



Todos lo saben
Zuz.: Asghar Farhadi. **Herr.:** Espainia (2018). **Iraupena:** 130 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Bizitza aldatzen duten gertakariak

Buenos Airesetik Espainiako bere jaioterrira bidaiautuko du Laurak ahizparen ezkontzara joateko. Espero gabeko gertakari batek euren bizitza aldatuko du.

Futbolisimos

Zuz.: Miguel Ángel Lamata. **Herr.:** Espainia (2018). **Aktoreak:** Julio Bohigas, Milene Mayer, Joaquín Reyes... **Iraupena:** 95 min.

Zerk/nork hautsi nahi du taldea?

Pakete, Helena eta gainerako lagunek abenturatan sartzeko abilezia handia dute. Soto Altoko futbol taldean jokatzen dute. Beren helburua taldea batuta mantentzea da, baina

misterio batek helburu hori lortzea oztopatuko die beren laguntasuna amaitzearekin mehatxu eginez. Lan horretan "Los futbolisimos" izatera igaroko dira.



Jon Ander Ubeda URNIETA

Joxeba Lizeaga Iñistorra elkarreko kideak egin zituen aurkezle lanak: “Miela, euskal sustrai sendoko urnietarra izaki, mezu berezi bat igorri digu esanaz: Urnietako kaleetan euskara gutxitxo entzuten duela eta gure harremanetan euskara erabili dezagun ahalegintzeko eskatuz. Mielaren eskaria aintzat hartuz, eta Euskal Herri osoan antolatuko den Euskaraldia dela eta, Urnietan Euskaraldia antolatze-ko abian jarri den taldeak aurkezpena egingo digu”.

Ekimena babestera Urnietako gizarte mailako hamaika eragile hurbildu ziren. Hauexek: Nahikari Garcia futbolaria, Jon Jauregi margolaria eta musikaria, Karmita Senin Galiziatik etorritako euskaldunberria, Mikel Iturria txirrindularia, Garbiñe Izeta irakaslea, Aihotz Albizu Andoaingo Udal langilea, Mikel Ormazabal Erkidegoko Kristau Eskoletako zuzendaria, Arantxa Goenaga kulturgintzako ekin-tzailea, Julen Gabirondo sega txapelduna, Nahikari Sanchez dantzaria eta Fermin Zinkunegi musikaria.

Hamaikakotik Aihotz Albizuk adierazpena irakurtzeari ekin zion: “Aurten, modu berezian ospatuko dugu Euskararen Eguna: Euskaraldiaren bitartez, Euskal Herriko beste herri guztiekin elkarlanean antolatuta. Gaur, oholtza honetara igo gara zuek guztioi Euskaraldia aurkeztu asmoz, eta bide batez, urnietar guztiei jakitera emateko: Urnietan ere Euskaraldia antolatuko dugula, zeregin horretan jardungo den batzorde bat osatu dela, eta Urnietan ere, euskara dakigunok harremanak euskaraz egitea nahi dugula aldarrikatzeko”.



Urnietako Euskaraldiaren hamaikakoaren aurkezpen ekitaldia San Juan plazan, jaien hasieran. Hamaikakoa: **E** Nahikari Garcia, **U** Jon Jauregi, **S** Karmita Senin, **K** Mikel Iturria, **A** Garbiñe Izeta, **R** Aihotz Albizu, **A** Mikel Ormazabal, **L** Arantxa Goenaga, **D** Julen Gabirondo, **I** Nahikari Sanchez, **A** Fermin Zinkunegi. AIURRI

Urnietarrak prest

Mielaren eta txupinazoaren atarian, Urnietako Euskaraldia Batzordeak hamaikakoaren aurkezpen ekitaldia antolatu zuen San Juan plazan. Ezin data eta toki egokiagorik ipini, horixe baita urte osoan jende gehien batzen den hitzordua. Azarora begira lanean jarrita daude, euskaldunak eta euskara bidean direnak erabileran aktibatze-ko helburuarekin

Jon Jauregik eman zion segida adierazpenari, Euskaraldian parte hartzeko xehetasunak eskainiz: “Baina zer da Euskaraldia? Lehen esan bezala, Euskal Herriko herri guztietan antolatuko den ekimena, azaroaren 23tik abenduaren 3ra. 16 urte gorako andre eta gizon guztioi

zuzendua dago eta partaideek ondoko konpromiso hauek hartu behar dute: Euskaraz dakienak edonori lehen hitza euskaraz egitekoa, horrela, Ahobizidun bihurtuz. Euskaraz hitz egiteko zailtasunak izan baina ulertzen dutenekin, euskaraz komunikatzea, nahiz erdaraz erantzun,

posible dela frogatzea, horrela, Belarriprest bihurtuz.

Eta horretarako zer egin behar dugu urnietarrok? Konpromiso hori hartzen dugula adierazteko, izena eman behar da, antolakuntzak horretarako kalean jarriko dituen mahaietan edo internet bidez. Euskaldunok

euskaraz hitz egin behar dugula konpromisoa gureganatu eta gure ingurukoen artean jarrera hori defendatu eta zabaltzeko. Urnietar guzti-guztiak gonbidatu nahiko genituzke Euskaraldian parte hartzera, bihar ere Urnietan euskaraz bizi den herri bat dela esan dezagun, esan dezaten”.

Xabier Lasa ANDOAIN

Jon Unanuek adierazi zuenez, Larramendi idazle, pentsalari, hizlari eta eztabaidalari paregabea izan zen, eta bere berebiziko ahalegina egin zuen estrategia zehatz baten alde. “Euskaldunen eta bereziki gipuzkoarren kontzientzia piztu nahi izan zuen nortasunaren, tradizioen, hizkuntzaren, kulturaren arloetan. Artean, euskaldunak kontzientzia handirik gabe bizi izan ginela uste zuen Larramendik”.

Gaztetan apologista bihurtu

Larramendik Bilbon, Valladoliden, Palentzian eta Salamancan filosofia eta teologiako ikasketak egin zituen, Josulagunekin. Behehala Salamancan eskola ematen hasi zen, “izena eta ospea handia lortuz, irakasle eta hizlari gisa”.

Gaztelako bizialdian, aukera izan zuen mendebaldean eta Espainian indarrean zen kultura eta politika ezagutzeko. “Besteak beste, gaztelaniaren apologistak ezagutu zituen; Espainiako Inperioaren batasunerako hizkuntza bakarra, gaztelania, behar zela aldarrikartzen zutenak. Horientzat, gaztelera ez beste hizkuntzak basatien hizkuntzak ziren”. Diskurtso horri aurre egiteko, euskararen aldeko apologia egitea erabaki zuen Larramendik.

Orduan jarri zuen bere bizitzako estrategia abian: 1728an Salamancan bizi zela, *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España* idatzi zuen. Bere tesiaren arabera, munduan dagoen hizkuntzarik ederrena, perfektuena, polifonikoa euskara da, eta hori defendatzeko historiari heldu zion, gure iruditeriako mitoak aipatuz. Horrela, euskara iberoarrek hitz egiten zuten lehenbiziko hizkuntza izan zen grekoarraren eta latinaren aurretik, Noeren illoba Tubalek ekarri zuena”.

Euskara prestigiatzeko ahalegin horretan, *El imposible vencido* liburua idaztea izan zen hurrengo pausoa. “Euskarari leporatzen diozue ezin dela arauetara makurtu. Baina nik erakutsi dizuet baietz. Horixe izan zen Larramendik zabaldu nahi izan zuen mezua. Oso hizkuntzalari ona zen, baina hortik ez zihoan bere benetako bokazioa; bera animalia politikoa zen, eta gaur esaten den bezala hizkuntza politika egin nahi zuen”.



Jon Unanue Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko lehendakaria hizlari lanetan aritu zen, Basteroko erakusketa aretoan. AIURRI

Aita Larramendi, hurbilketa txikia

Jon Unanuek Aita Larramendi euskaltzale eta pentsalaria hizpide izan zuen, Euskaraldiak Basteron ipini zuen erakusketan. Pertsonaia historikoa aldarrikatu nahi izan zuen Larramendi Bazkuneko lehendakariak, horretarako arrazoiak emanez

Euskarak kanpoan zituen etsaiei aurre egiteko ez ezik, barrukoei begira ere idazten zuen. Izan ere, “ohiko fenomeno gertatzen zen orduan: Euskal Herriko eta Gipuzkoako eliteko jauntxo asko Madrilgo kortean zeuden”.

Erreginaren aitorle

Garai hartan ohitura izaten zen elizaren inguruko kongregazioek beren elizgizonik diztirtsuenak erregeen inguruan edukitzea, aitorle edo aholkulari gisa. Bada, Jesusen Lagundiak, Larramendi, errege izandako Carlos II-ren alargun Mariana de Neoburgoren aitorle izendatu zuen.

Loiolan, helburu zientifikotik baino gehiago politikotik zuen

bere estrategiaren hurrengo pausari ekin zion: *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latin* idatzi zuen, bi aletan, 1745ean. Behin hiztegia kalera-tuta, “euskaldunek euskaraz ez dute idazten” leloari egin zion aurre. “Literatur eskola sortu zuen, atzetik jarraitzaile ugari bilduz; hasieran eliz-liburuak eta katezismoak eta antzekoak idazten zituzten elizgizonak izan ziren, baina pixkanaka-pixkanaka, zibilak ere batzen joan zizkizkion, Iztueta bat konparazio baterako”.

Foruen defentsa, hizpide

Larramendiren azken urtetako ahalegina foruen defentsara bi-

deratu zuen batez ere. “Gipuzkoa aipatzen zuenean, Euskal Herria zeukan gogoan. Bere iritziz, euskal foruak geroz eta gertuago zeuden desagertzetik, eta horren aurrean, euskaldunek ez zuten aski egiten haiek defendatzeko. Era horretan, hipotesi errealak aipatu zituen, Espainiak foruak bertan behera utziz gero. Horietako bat, Euskal Herriko zazpi herrialdeek bat egitea izan zen. Interpretazio ugari egiteko bidea jartzen du Larramendik bere azken urteetako liburuekin, baina bada gauza bat eztaba daezina: zuzenbidearen eta politikaren historian, planteamendu guztiz berritzaileak egin zituen”.

Bere bizitzako desgrazia

Konnotazio politikoenak zituen idatzi horiek, argitaratu ezinik geratu ziren. Hori izan zen bere bizitzako tragediarik mingarriena, Ununeren esanetan. “XVIII. mendean barrena, eliz kongregazioek eta Jesusen Lagundiak botere handia zeukaten Europa osoan eta errege absolutistek ez zuten batere gogoko hori. Jesusen Lagundian neurriak hartzen hasi ziren kontuz ibiltzeko. Horietako bat, foruak hizpide ziztuzten Larramendiren idatziak baztertzea izan zen”.

Larramendi 1766an hil zen, haien argitarapenik ikusi gabe. Hurrengo urtean josulagunak Espainiatik, Europatik eta Ameriketako kolonietatik kanporatu egin zituzten. Bere bi liburu, *Corografía de Guipuzcoa* eta *Sobre los fueros de Guipuzcoa* urte askoren buruan argitaratu ziren. Ostera, *Historia de Guipuzcoa* liburuaren arrastorik ez da topatu oraingoz.

Garagorri-enea, Larramendi Bazkunaren egitasmoa

Unanuek hitzaldiaren amaieran iragarri zuenez, Larramendi Kultur Bazkunak *Garagorri-enea* izeneko egitasmoa darabil eskualdean. Larramendiren irudia, egintzak eta obra ezagutarazi eta guztia bere testuinguru historikoan ipini nahi da, euskaltzaletasunaren eta euskalgintzaren eredu bihurtzeko asmoz.



AZKEN BERBA

JON ANDER UBEDA
ANDOAIN

Albiste izatera iristen ez diren gertaera latzak

Lerroburu handien itzalpean beste batzuk ezkutatzen dira. Isiltasunarekin txiki bilakatzen ditugu, ahazten ditugun arte. Joan zen asteazkenean, sexu erasoan aurka, Goikoplaza jendez gainezka zegoen. Gau hartan, andoaingar askori begietan dir-dir egiten zion Instagramen edo Facebooken ikusitako irudiak. La Salle etorbideetik ateratako argazkian, esaterako, nekez ikus zitekeen “Emakumeen aurkako erasorik ez” pankarta. Haren aurrean, atzean eta ertzetan ehunka lagun bildu zen. Gizartea gehien asaldatzen duen arazoetakoa da, sexu erasoena.

Egun hartan, ordea, pertsona bat hil zen Andoaingen. Olagain auzoan 85 urteko emakume batek bere buruaz beste egin zuen. Ez zen albiste izatera iritsi, kasu horietan halako muga sortzen baita kaleko hizkeratik tokiko albistera. Egunezko albiste nagusiak mesede egin zigun kazetarioi, eta Olagaingo gertaerari iskin egin genion: Bere buruaz beste egin duenarekin, gaude isilik.

85 urteko emakume hura abuztuaren 8an alargundu zen. Bada hor gertaera ulertzen ahalegintzen digun pista. Hari horri tiraka komunitatea osatzen duten herrikideen mesederako izan daitekeen kazetaritza pieza osa daiteke. Baina ez diogu gaiari heltzen.

Zaharrak berri. 2015eko maiatzaren 24an Udal hauteskundeetan gaua intentsitate handiz bizi izan genuen Aiurri. Gauerdia pasata, lanak amaituta, etxeko TVn albistegi berezia ipinita zegoen. Nire begirada, ordea, gortinatik harago iltzatuta zegoen. Arratsalde hartan etxeko leihotik ikusten dudana Belabi kalean emakumezko batek bere buruaz beste egin zuen. Gertaera hura ere isiltasunaren kuxara bidali genuen.

AZKENA



Manuel Larramendi Kultur Bazkunezko kideak bisitariei argibideak ematen ari zirela, 2016ko jardunaldien argazkian. AIURRI

Ondarean sakondu, emakumeei begira jarrita

Ondarearen Europako Jardunaldiaren edizio berria iristear da, Aldundiaren eta tokian tokiko eragileen partaidetzarekin. Andoaingo kale eta plazen izenak eta Urnietako organoa aztergai izango dituzte urriaren 21ean, emakumeengan begirada jarrita

Erredakzioa ESKUALDEA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak, hiru-garren urtez jarraian, Ondarearen Europako Jardunaldiak antolatu ditu. Denera hirurogeita hamar jarduera ezberdin burutuko dituzte, Gipuzkoa osoko hogeita hamairu udalerrian. Egitasmoa Andoaingera

eta Urnietara iritsiko da hurrengo urriaren 21ean, herrigune bakoitzean egingo den jarduera banarekin. Aurkezpen ekitaldian Denis Itxaso Kultura diputatuak aurtengo egitasmoa azaldu zuen: “Gure erronka emakumearen eginkizuna ikusaraztea da. Ondasun kulturalak sortu, zaindu eta transmititzeko garaian, bes-

te alderdi askotan bezala, ezkutatuta edo kontuan hartu gabe egon baitira”. Gipuzkoako Foru Aldundiak aurtengo ediziorako Urnietako Udala, Manuel Larramendi Bazkuna eta Andoaingo Udala bidelagun izan ditu. Andoaingo eta Urnietako ekitaldietarako dagoeneko izena emateko aukera zabalik dago.



Hilaren 21ean Andoaingen eta Urnietan

ANDOAIN

Bisitaldi gidatua:
Andoaingo kale eta plazak: emakumeen emaria ezkutuan

“Ama Kandidaren etorbideetik Algodonerako Emakumeen plazaraino joanaz, emakumeen emaria ezkutuan gelditu dela azpimarratuko duen ibilbidea egingo dugu. Emakume urri horiek utzitako ondarean sakonduko dugu”.

- Euskara, gaztelania.
- Berroztpe etxearen ataria.
- Urriak 21, igandea. 09:30.
- Antolatzaileak: Andoaingo Udala; Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
- Izen-ematea: 943 303 540. kultura1@andoain.eus.

URNIETA

Ikuskizuna: Emakumeen gure Cavaille-Coll organoaren interpretari, erakusle eta zaindari

“1865ekoa da Urnietako elizan dagoen Cavaille-Coll organoa. Urnietako elizan organo eskolak ematen ditu gaur egungo musika eskolako zuzendaria eta Donostiako Koruko Andre Mariaren basilikako organista izenduna den Ana Belen Garciak. Organoa bera ezagutzera eman nahi da. Lehenik kontzertua eskainiz eta, ondoren, Ana Belenen laguntzaz organoa bisitatuz”.

- Euskara, gaztelania.
- Eliza.
- Urriak 21, igandea. 19:00.
- Antolatzailea: Urnietako Udala.
- Izen-ematea: 943 00 80 00. urnietakoudala@urnieta.eus.